

## DIRU-ITURRIAK

Gure hasierako kapitala nahiko altua izango da. Donostiako zenbait taberna eta jatetxe gurekin kolaboratuko dute, gure lokal solidarioa aurrera eramateko, 100 euro emanaz hilabetero. Printzipioz 100 establezimendu lagunduko digute, 10000 euroko kapitala lortuz. Kapital horri, jendea gure lokalera hurbiltzen denean egin dezakeen donazioak gehituko zaizkio.

Beste diru iturri batzuk izango ditugu, adibidez izan ditzazkegun inbertitzaile posibleetatik, eta bestetik, jakinda ematen diguten laguntzak ekintza solidario baterako direla, udaletxeak eta gobernuak parte hartu nahiko dutela pentsatzen dugu. Lokala eta enpresa eraikitzeke diru kantitate nagusi bat beharko dugunez, bankuari mailegu bat eskatu beharko dugula uste dugu, 10000 eurokoa gutxi gorabehera.

Gure aplikazioa arrakasta baldin badu, iragarkiak eta publizitatea sartuko ditugu, eta horrekin dirua lortuko dugu.

Gure enpresak aurrera doan bitartean eta gero eta jende gehiago erabili ondoren, lortutako diruarekin gure 4 langileen soldatak ordainduko dizkiegu, lokala mantentzeko erabiliko dugu dirua, bai argia ordaintzeko, ura eta lokalaren alokairua.

Diru horrekin lokala, aplikazioa, janaria biltzeko furgoneta, ofizinarako materiala, janaria prestatzeko gailuak,... ordainduko ditugu.

Irabaziak eta gastuak kontuan hartuta gure soldata 1000 eurokoa izango dela uste dugu.